Merluza	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Rape	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Sardina	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Verdel	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-

OTORDUAK INGURUMEN GAIAK KONTUAN IZANDA PRESTATU ETA BANATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE ELABORACIÓN Y SUMINISTRO DE COMIDAS CON PERSPECTIVA MEDIOAMBIENTAL

– *BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	GIZARTE ONGIZATEA / BIENESTAR SOCIAL
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2023ZAUN0068

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea otorduak prestatu eta banatzeko zerbitzua ematea da, ingurumen gaiak kontuan izanda betiere. Hain zuzen ere, Irungo Udaleko Gizarte Ongizateko Arloko erabiltzaileentzako **otorduak prestatu beharko dira, eta haien etxera eraman**, ingurumen gaiak kontuan izanda betiere, baldintza teknikoen pleguak finkatzen duen aurrekontuaren barruan eta plegu horrek berak ezartzen dituen baldintza teknikoak beteta.

Gainera, adineko autonomoentzako **hiru etxebizitza komunitarioetarako bazkari eta afariak** prestatu beharko dira, eta haietara eraman. Etxebizitza koumunitario bakoitzean erabiltzaileentzako 3 plaza daude, eta horiek zerbitzu horretan sartuko dira, bazkariak eta afariak barne

Horrela, erabiltzaileak beren ingurunean gelditu daitezen lagunduko da, haien behar nutrizionalei erantzunda.

Zehazki, honako hauek dira zerbitzuaren helburu espezifikoak:

- Mendekotasun egoeran, mendekotasun arriskuan edo egoera sozial ahulean dauden erabiltzaileei dieta orekatua eskaintzea, beren adinaren eta osasun egoeraren arabera beharrezkoak dituzten nutrienteak barne
- Zerbitzuaren hartzaile izan daitezkeenen artean malnutrizio arriskua prebenitzea
- Pertsona zaurgarriak ezbeharrik izateko arriskuan ez jartzea
- Mendekotasun arriskuan edo egoera sozial ahulean dauden pertsonen jarraipen soziala egitea, laguntza handiagoa eta/edo beste baliabide sozial batzuk behar dituzten ikusteko

2. HARTZAILE IZAN DAITEZKEENAK

Zerbitzua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren arabera mendekotasun egoera dauden pertsonentzat izango da, baita pertsona autonomoentzat eta familia taldeentzat ere.

Oro har, zerbitzuaren erabiltzaileen profila autonomia galdu dutelako edo zaurgarritasun egoeran daudelako zerbitzua aldi baterako edo iraunkorki behar duten pertsonena eta familia taldeena da.

3. ZERBITZUAREN DESKRIPZIOA

Irungo Udaleko Gizarte Ongizateko Arloko erabiltzaileentzako otorduak prestatu beharko dira, eta haien etxera eraman, ingurumen gaiak kontuan izanda betiere. Gainera, Gizarte Ongizateko Arloak kudeatzen dituen adinekoentzako hiru etxebizitza komunitarioetarako bazkari eta afariak prestatu beharko dira, eta haietara eraman.

Kontuan hartu beharko dira baldintza hauek:

- Irungo Udaleko Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal araudiaren laugarren xedapen gehigarriak finkatzen dituen irizpide eta arauei jarraikiz Udalak otorduak etxera eramateko eskaintzen duen zerbitzuaren unean uneko onuradunak izan ahalko dira otorduak prestatu eta banatzeko zerbitzuaren erabiltzaileak [GAO, 187, 2017ko irailaren 29koa].

- Etxebizitza partikularretara otordu bat bakarrik eramango da egunean (bazkaria), eta etxebizitza komunitarioetara, bazkaria eta afaria.

- Otorduak etxe desberdinetara eramango dira egunero; zerbitzuaren erabiltzaile bakoitzaren etxera, zuzenean. Esleipendunak Udalak eskatzen dion otordu kopurua prestatuko du: aurreikuspenen arabera, 4.929 otordu hilean eta, batez beste, 144 egunean.

OTORDU KOPURUA	BAZKARIAK	AFARIAK	URTEA
EEZ	141		51.535,50
Etxebizitzak komunitarioak	**9**	9	6.579,00
	54.825,00	3.289,50	**58.115,00**

- Adinekoentzako etxebizitza komunitarioak, gaur egun, Pikoketa karrikako bi etxebizitza eta Pilar karrikako etxebizitza bat dira.

C. MENUEN OSAERA ETA PRESTAKUNTZA

- Esleipendunak **otordu bakoitzerako bi menu oso** eskaini beharko ditu egunean, atal honek finkatzen dituen irizpideei jarraikiz.

- **Eskakizun hauek bete beharko dira menuak osatu eta prestatzeko:**

  - Menuak osatuak eta orekatuak izatea
  - Prestatzen diren elikagaiak erabiltzaileen beharretara egokitzea eta errazio eta testurak haien adinaren eta beharren araberakoak izatea (elikagai xehatuak, mastekatzen errazak edo osoak)
  - Menuak behar bezala ontzea
  - Menuak itxuraz erakargarriak izatea
  - Menuak askotarikoak izatea (askotariko produktuak erabiltzea eta produktu freskoak eta izoztuak konbinatzea, kalitatea eta produktu freskoen erabilera hobetsita betiere)

- Aurrez kozinatutako produkturik eta beste marka edo enpresa batzuek prestatutakorik ez erabiltzea
- Kozinatzeko teknika osasungarriak hobestea elikagaiak frijitzearen edo arrautza-irinetan pasatzearen aldean: lurrunetan egostea, labean egitea, parrillan egitea, erretzea...
- Zukurik, edari azukredunik, gozokirik eta, oro har, azukre finduak dituen produkturik ez erabiltzea
- Barazkien kontsumoa hobestea
- Produktuak prestatu eta ontzeko oliba olioa erabiltzea
- Elikagaiak frijitzeko ekilore olio oleikotan aberatsa erabiltzea; ez erabiltzea olio gantz azido aseetan aberatsak (palma olioa, etab.), ez trans gantz azidotan aberatsak
- Menuak bertako gastronomiara eta sasoian sasoiko eskaintzara egokitzea

➢ Adinekoak elikatzeko, **oro har**, aukera hauek ematea sustatu beharko da:

- Fruta ale bat egunean
- Bizpahiru lekale errazio astean
- Entsalada errazio bat egunean, osagarri
- Hiruzpalau arrain errazio astean
- Dieta orekatu bat: % 15, proteinak (haragia, arraina, arrautzak, esnea eta esnekiak, lekaleak...); % 30, gantzak (olioak, margarina eta gurinak, esneki osoak, fruitu lehorrak, hestebeteak...); eta % 55, karbohidratoak (fruta, ogia, pasta, arroza, barazkiak, zerealak...)
- Elikagai zuntzetan aberatsak (osoko ogia, osoko arroza, lekaleak, barazkiak...)

➢ Aipatutakoari kalte egin gabe, oro har, **otordu bakoitzak honako hauek hartu beharko ditu barnean gutxienez**:

	BAZKARIA	AFARIA
Lehenengo platera	Zopa, salda, krema, barazkiak, entsalada, pasta, lekaleak, arroza, arrautzak... (bi aukera)	Zopa, barazkiak, krema... (bi aukera)
Bigarren platera	Haragi edo haragikia, arraina edo arrainkia (bi aukera)	Haragia, arrautzak, arraina... (bi aukera)
Postrea	Bi aukera	Bi aukera
Ogia	Bai, glutenik gabekoa barne	Bai, glutenik gabekoa barne
*Menu guztiak erabili eta botatzeko ahozapiekin zerbitzatuko dira, eta ahozapiak zuntz birziklatuzkoak edo modu iraunkorrean kudeatutako zuntz birjinazkoak izango dira. * Askotariko produktuak erabili beharko dira, eta produktu freskoak eta izoztuak konbinatu, sasoian sasoiko produktuak erabiltzea hobetsita betiere.		

- Dietetika eta Nutrizioan **espezialista den pertsona batek gainbegiratuta/aholkatuta** osatuko dira proposatzen diren menuak. Baldintza dietetiko eta nutrizionalak beteko dira, eta, menu edo dieta terapeutiko desberdinak prestatzeko (hipokalorikoak, zuntzetan aberatsak, zeliakoak direnentzakoak...), kontuan hartuko dira zerbitzuaren erabiltzaileek medikuen aginduz ematen dituzten jarraibideak.

- Esleipendunak zerbitzatzen dituen **lehengai eta produktu guztiek** legezko araudia beteko dute, eta, bereziki, Espainiako Elikadura Kodea.

- Entsaladak eta abar ontzeko produktuak indarreko legediarekin bat etorriko dira.

- Esleipendunak izango du produktuen balizko alterazioen erantzukizuna, beti.

- **Lehengaiak** indarreko araudiari jarraikiz **biltegiratu** eta kontserbatuko dira.

- **Dietak osatuak, orekatuak, askotarikoak, atseginak, itxuraz erakargarriak** eta erabiltzaileen beharren edo medikuen aginduen araberakoak izango dira, eta dietetikaren ikuspegitik baloratuko dira.

- **Menuak hiru astean behin errepikatuko dira gehienez ere**, plateren aniztasuna bermatzeko.

- **Jaiegun berezietan** (abenduaren 24, 25 eta 31n eta urtarrilaren 1 eta 6an) eta erabiltzaile bakoitzaren urtebetetzean, menu berezi bat proposatu beharko da, medikuen aginduak beteta betiere.

- **Dieta terapeutikoak** (hipokalorikoak, zuntzetan aberatsak, zeliakoak direnentzakoak...) erabiltzaileek beraiek edo berauen ordezkariek eskatu beharko dituzte, barne erregistroaren bidez edo telematikoki, eta, horretarako, medikuaren agindu pertsonalizatua erantsi beharko diote otorduak etxera eramateko zerbitzua erabiltzeko eskaerari, lehen mailako arretako medikuak beteta. Gizarte Ongizateko Arloaren eta, zehazki, administrari laguntzailearen ardura izango da aginduak esleipendunari helaraztea.

- Esleipendunak hilean eskaintzen dituen **menuen kopiak banatu** beharko dizkie erabiltzaileei, **aurrez** aukeratu ahal izan dezaten. Menu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz banatuko ditu, paperean, erabiltzaile bakoitzaren zirkunstantzietara egokituta, erabiltzaileek erraz ikusi, ulertu eta irakurri ahal izan ditzaten. Eguneko beste otorduetan dagokion dieta osatzeko argibideak ekarriko dituzte menuek.

- Erabiltzaileen senideek dagokion menuaren kopia bat eskatu ahalko diote esleipendunari, erregistro elektroniko bidez edo telematikoki, eta hark hileko azken lanegunean helarazi beharko die.

- Esleipendunak hilean eskaintzen dituen menuen proposamena helarazi beharko dio Gizarte Ongizateko Arloan kontratuaren ardura duen pertsonari, posta elektroniko bidez, hilabete lehenago, atal honek finkatzen dituen irizpideei jarraikiz.

- Gizarte Ongizateko Arloan kontratuaren ardura duen pertsonak edo beronek ordezkari izendatzen duenak esleipendunak helarazten dion proposamenaren **jarraipen eta balorazioa** egingo du, eta, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko beharrezkoa bada, menuetan aldaketak egitea proposatu ahalko du.

- Udalak otorduak prestatu eta banatzeko **zerbitzuaren erabiltzaileen zerrenda aldatu** ahalko du, bere nahierara, zerbitzu bakoitzaren eskariaren edo beste erakunde batzuekin egiten dituen akordioen arabera. Gainera, Gizarte Ongizateko Arloko beste zerbitzu batzuen erabiltzaileak sartu ahalko ditu zerbitzuaren erabiltzaileen zerrendan baldin eta behar dutela jotzen badu.

D. BANAKETA EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Otorduak prestatu eta banatzeko zerbitzua urteko egun guztietan emango da, eta esleipendunaren kontura izango da gaixotasunak, oporrak eta abar direla-eta lanera joaten ez diren langileak ordeztea zerbitzua ematea bermatzeko.

Astelehenetik ostiralera bitartean, lanegunetan, **otorduak 09:00etatik 14:00etara bitartean banatuko dira**. Zerbitzu hori banatzeko, astean 16 ordu gutxienez bi lanaldi osotzat jotzen dira.

Etxebizitza komunitarioetako otorduak (bazkaria zein afaria) batera banatuko dira.

Asteburuetan eta jaiegunetan, honela banatuko dira otorduak:

- Larunbateko zein igandeko otorduak ostiralean banatu ahalko dira.
- Otorduak 48 ordu lehenago banatu ahalko dira goizenik.
- Jaiegunetan, bezperan banatuko dira otorduak.

Banaketa aipatutako ordutegitik kanpo egin behar izateko salbuespenezko arrazoirik badago, 24 ordu lehenago, kontratuaren arduradunari jakinaraziko zaio.

4. ESLEIPENDUNAREN EGINBEHARRAK

Esleipendunak baldintza hauetan eman beharko du otorduak prestatu eta banatzeko zerbitzua:

- Urteko egun guztietan emango du zerbitzua, eta, haren barruan, zeregin hauek egingo ditu:
    - **Menu eta dietak osatzea**, atal honi jarraikiz
    - Bazkari eta afariak **prestatzea**, bere instalazioetan
    - Zerbitzua **etengabe hobetzeko parametroetara** egokitzea
    - Aurreikusten dituen menuak prestatzeko beharrezkoak diren gaiak behar bezala manipulatu, egin eta kozinatzeko **protokolo eta arauak** finkatzea
    - **Plateretarako** ontzi edo erretilu indibidualizatuak erabiltzea, ingurumen gaiak kontuan izanda betiere
    - Bazkari eta afariak ibilgailu hozgarridun homologatuetan **eramatea** erabiltzaileen etxera, ahalik eta egoera onenean irits daitezen kolore, zapore, usain eta testurari (baldintza organoleptikoei) eta tenperaturari dagokienez
    - Otorduak prestatu eta banatzeko prozesu osoan prozedura eta tenperaturaren manipulazioa errespetatzen direla bermatzea, **elikagaiak ahalik eta egoera onenean** egotea ziurtatzeko
    - **Etiketak eta menuei buruzko informazioa** (iraungitze data, etab.) irisgarriak eta erabiltzaileek erraz irakurtzeko modukoak izatea

- Zerbitzua emateko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko **araudiek** elikagaien

manipulazioari eta elikadura jarduera, industria eta establezimenduak eta baimentzeari buruz xedatzen dutena beteko du, baita jaki prestatuak eta menu dietetikoak prestatu eta banatzeko araudiak dioena ere, eta haiek ontziratu, etiketatu eta kontrolatzeko beharrezkoak diren neurriak betetzen direla bermatu.

- Otorduak banatu bitartean sortzen diren intzidentziak (absentziak, etab.) kontratuaren arduradunari jakinaraziko dizkio; haien larritasun edo garrantziagatik beharrezkoa bada, berehala.

- Zerbitzua emateko eskakizunei erantzuteko, **koordinatzaile bat** jarriko du, zerbitzua emateko orduetan (08:30etik 14:30era bitartean) jardungo duena.

- **Kexa eta iradokizunak** (ahozkoak zein idatzizkoak) **bildu eta erregistratzeko sistema bat** izango du, haiek behar bezala tratatzeko balio duena.
  Baliabide hori erabiltzaileek beraiek zein senideek erabiltzeko bide emango du. Kexa eta erreklamazio guztiak kontratuaren arduradunari jakinaraziko dizkio; haien larritasun edo garrantziagatik beharrezkoa bada, berehala.

- **Ebaluazio sistema bat** izango du, zerbitzua etengabe hobetzeko aldaketak egin ahal izateko. Ebaluazio horren emaitzak urtero bidali beharko zaizkio zerbitzuaren ardura duen udal teknikariari.

- Urtero, kontratu hau betetzeko adskribatzen dituen langileek emandako prestakuntzari buruzko xehetasunak emango dizkio kontratuaren arduradunari, kontratua betetzeko ezartzen diren epean eta moduan: edukiak, maiztasuna eta arduradunak.

- **Hornikuntzaren kudeaketari dagokionez**, produktuak eskuratu eta kontserbatzeko, zera bermatuko du:

  - Gutxieneko stockak izatea
  - Hornitzaileek Elikadura Kodearen eta dagozkion araudien eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzea
  - Erabiltzen dituen prozesu eta material guztiek indarreko elikadura araudia eta berau garatzeko xedapen eta arautegi guztiak betetzea, baita aplikatu beharreko Europako arau guztiak ere
  - Elikagaiak manipulatzen dituzten langileei buruzko araudia eta jangela kolektiboei buruzko araudi tekniko sanitarioa betetzea

- **Garbiketa eta desinfekzioari dagokionez**, produktuak mantendu, manipulatu eta garraiatzeko instalazio eta elementu guztiak ahalik eta egoera onenean egotea bermatuko du, eta, horretarako, garbitu eta desinfektatu egingo ditu, ingurumena ahal bezainbat errespetatzen duten produktu egoki eta espezifikoak erabiliz.

  Elikagaiak kontserbatu, biltegiratu, prestatu eta banatzeko espazioetako intsektu eta arratoiak hiltzeko lanak egingo ditu, bere kontura.

- Higienea mantentzeko lanak eta garbiketa eta desinfekzio lanak egingo ditu, bere kontura, eta hornigai energetikoen, kontsumitzen duen uraren, konponketa lanen, makineria mantentzeko lanen, banaketa ibilgailuen... **gastuak** ordainduko ditu.

5 .IRUNGO UDALAREN EGINBEHARRAK

Esleipenduna eta Irungo Udala Gizarte Ongizateko Arloko Adinekoen Zerbitzuko teknikarien bitartez jarriko dira harremanetan.

Udaleko teknikariak arduratuko dira **zerbitzuaren jarraipen, gainbegiratze eta kudeaketaz**, baita esku hartzearen eta erabiltzaileei ematen zaien arretaren egokitasunaren jarraipenaz ere.
Teknikariek zerbitzua behar bezala ematen dela kontrolatzeko beharrezkoa deritzoten informazio guztia eskatu ahalko diote esleipendunari, egoki deritzeten aldi guztietan, kudeaketa orduen barruan (08:30etik 14:30era bitartean) betiere.

Esleipenduna eta Irungo Udaleko Gizarte Ongizateko Arloko Adinekoen Zerbitzua esleipendunak izendatzen duen koordinatzailearen bitartez jarriko dira harremanetan. Profesional horrek Adinekoen Zerbitzuaren aginduak jasoko ditu, eta zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren erabakiak bat-batean hartzeko eskuduntza nahikoak izango ditu.

Udaleko teknikariak eta esleipendunarenak aurrez aurreko bileren, bitarteko telematikoen eta/edo telefonoaren bidez **koordinatuko** dira, informazioaren berehalako transmisioa bermatzeko moduan.
Koordinazio bileretan, sortzen diren intzidentziak aztertuko dira, zalantzak argitu, baterako esku hartzea diseinatu, zerbitzuan eragina duten gainontzeko gaiak eta zerbitzuan egin daitezkeen hobekuntzak landu, eta kontratua zer-nola betetzen ari den egiaztatu eta haren jarraipena egin. Horretarako, esleipendunak eskatzen zaion informazioa eman beharko du.

6. GIZA BALIABIDEAK

B) BALDINTZA OROKORRAK

Esleipendunak jartzen dituen langileen kopurua zerbitzua behar bezala (zerbitzuaren kalitate eta efizientzia mailak kontratu honen ondoriozko eginbeharrak betetzeko beharrezkoak direnak izanda) emateko nahikoa izango da, eta bere kontura izango da haiek kontratatzea.

Esleipendunak berehala ordeztuko ditu, bere kontura, oporretan dauden langileak, gaixotasun bajan daudenak edo dena delakoagatik zerbitzua eman ezin dutenak.

Langileek azaleko lesiorik edo elikagaien bidez kutsa daitekeen beste gaixotasun infekziosorik badute, berehala ordeztu beharko dira.

Eman beharreko zerbitzu mota ematera eta egin beharreko zeregin motak egitera ohituta dauden langileak izango dira ordezkoak, eta esleipendunak kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko dio zergatik sortu den dena delako intzidentzia eta ordezkapenak zenbat denbora iraungo duela aurreikusten duen.

Betiere, langileek erabateko arretaz eta errespetuz tratatu beharko dituzte erabiltzaileak; ahoz zein idatziz, haiek aukeratzen duten hizkuntzan.

C) UNIFORMEA

Zerbitzu bakoitza emateko adskribatuak diren langileek dagokion uniformea eraman beharko dute, eta garbi-garbi dagoela begiratu. Era berean, nola deitzen diren eta zer enpresatakoak diren adierazteko identifikazio plaka bat eraman beharko dute.

Esleipendunak elikagaiak prestatu eta banatzeko prozesuan erabateko higienea bermatzeko

beharrezkoak diren elementu guztiak eman beharko dizkie langileei: burukoak, eskularruak, musukoak, eskuak lehortzeko papera...

D) **PROFILA**

Langileek **elikagaiak manipulatzeko ziurtagiria** izan beharko dute, indarreko araudiaren arabera, eta Jaki prestatuak prestatu, banatu eta komertzializatzeko higiene arauak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3484/2000 Errege Dekretuaren xedapenak ezagutu beharko dituzte.

Halabeharrez, esleipendunak menuak kontrolatu eta gainbegiratzeko dietista-nutrizionista bat eta zerbitzuaren koordinatzaile bat jarri beharko ditu.

E) **PRESTAKUNTZA**

Langileek prestakuntza hau eman beharko dute:

- HACCP Arriskuen Analisia eta Kontrol Puntu Kritikoak sistemari eta beronen barruan betetzen dituzten eginkizunei buruzko prestakuntza, baita elikagaiak fabrikatu eta manipulatzeko jardunbide egokiak ere
- Alergenoak manipulatzen dituzten langile guztiek, haiei eta haien ondorioei eta manipulazioari buruzko prestakuntza
- Hondakinak minimizatu eta kudeatzeko eta gaika biltzeko prestakuntza, zerbitzua emateko erabili beharreko produktuei buruzko informazioa eta, oro har, osasun, segurtasun eta ingurumen gaiei buruzko prestakuntza
- Eman beharreko zerbitzuaren inguruko beste gai orori buruzko prestakuntza
- Garraio ibilgailuak gidatzeaz arduratzen diren langileek, modu efizientean gidatzeko prestakuntza

Urtero, esleipendunak kontratu hau betetzeko adskribatzen dituen langileek emandako prestakuntzari buruzko xehetasunak emango dizkio kontratuaren arduradunari: edukiak, maiztasuna eta arduradunak.

7. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Erabiltzen diren prozesu eta material guztiek elikadura araudia eta berau garatzeko xedapen eta arautegi guztiak beteko dituzte, baita aplikatu beharreko Europako arau guztiak ere:

- Elikagaiak manipulatzen dituzten langileei buruzko araudia
- Jaki prestatuak prestatu, banatu eta komertzializatzeko araudia
- Elikagaiei buruzko araudiak

Esleipendunak hornitzen dituen produktuek etiketatze, ontziratze eta erregistro sanitarioari buruz

indarrean dagoen araudia bete beharko dute.

Era berean, Jaki prestatuak prestatu, banatu eta komertzializatzeko higiene arauak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3484/2000 Errege Dekretua bete beharko da, nahitaez, baita Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak oboproduktuak erabiliz prestatutako produktuen fabrikazioa arautzeko emandako agindua ere.

8. INGURUMENAREN GAINEKO INPAKTUA

A) BALDINTZA OROKORRAK

Ahal duen guztietan, esleipendunak zerbitzua emateko erabiltzen dituen elikagai eta produktuak ingurumenari ahalik eta kalte gutxien egiteko moduan ekoitzitakoak izango dira.

Esleipendunak bere jarduera eta zerbitzu guztietan aplikatu beharreko ingurumen araudia betetzeko konpromisoa hartuko du, eta, beti, haiek planifikatu eta erabakitzeko, kontuan hartuko ditu ingurumen baldintzak.

B) HONDAKINEN MINIMIZAZIOA, KUDEAKETA ETA GAIKAKO BILKETA

Esleipenduna sortzen dituen hondakinak erretiratzeaz arduratuko da, eta haiek behar bezala (indarreko ingurumen legediarekin bat etorriz) kudeatzeaz, haiek eraman beharreko lekuari zein haiek eramateko orduei eta sistemari dagokienez.

Hiri hondakinekin parekatzen diren hondakinak berariazko edukiontzi edo guneetan utziko dira, eta plastiko birziklagarria, beira, papera eta kartoia, hondakin organikoak eta errefusa gaika bilduko dira, bilketa sistemari jarraikiz. Olio hondakinak, berriz, kudeatzaile baimendu baten esku utzi beharko dira.

C) PRODUKTUAK

1. SASOIAN SASOIKO PRODUKTUAK

Menuak osatzen dituzten produktu nagusiak (plateren izenean ateratzen direnak, hala nola espinaka tortilla eta kiwi eta sagar broxeta) sasoian sasoikoak izango dira; alegia, sasoi bakoitzean eskualdean arrantzatutakoak edo aire zabalean ekoitzitakoak. Erreferentzia I. eranskineko egutegia izango da (https://www.nirea.eus/es/calendario-productos-temporada/). **Eginbehar hori kontratua betetzeko baldintza berezia eta oinarrizkoa izango da.**

2. PAPEREZKO PRODUKTUAK

Zerbitzua emateko erabiltzen diren paperezko produktuek, hala nola sukaldeko paperak eta paperezko ahozapiek, biodegradagarri eta konpostagarriak izan beharko dute, EN13432 arauari jarraikiz.

3. GARBIKETA PRODUKTUAK

Esleipendunak ahalik eta produktu kimiko arriskutsu gutxien erabili beharko du, eta, ahal duen neurrian, ingurumena errespetatzen duten produktu ekologikoak erabiltzea hobetsi.
Horrenbestez, honako hauek erabili beharko ditu:

- Garbiketa produktu eta baxera garbitzeko detergente **ekologikoak**
- Tenperatura baxuan eraginkorrak diren produktuak

Bestalde, aldian-aldian, esleipendunak **garbiketa plan eta teknikak aztertu beharko ditu**, produktu gutxiago erabiltzeko ingurumena errespetatzen ez dutenetakoak eta osagai kimiko arriskutsuak (fosforoak, biozidak, etab.) dituztenetakoak, eta, **urtero**, azterketak justifikatzeko dokumentazioa helarazi beharko dio Udalean zerbitzuaren ardura duen pertsonari.

4. ONTZIAK, BAXERA ETA MAHAI TRESNAK

Zerbitzua emateko erabiltzen diren ontziak, baxera eta mahai tresnak biodegradagarri eta konpostagarriak izango dira, EN13432 arauari edo arau baliokide bati jarraikiz, janari hondarrekin batera jaso ahal izan daitezen, edo berrerabilgarriak; berrerabilgarriak badira, esleipendunak haiek utzi eta itzultzeko sistema bat antolatu beharko du. **Eginbehar hori kontratua betetzeko baldintza berezia eta oinarrizkoa izango da,** eta, bete egiten dela egiaztatzeko, botere esleitzailea zerbitzura azaldu ahalko da.

5. GARRAIOA

Zerbitzua emateko erabiltzen diren ibilgailuek EURO4/IV arauak ihes hodiek botatzen dituzten gasei dagokienez finkatzen dituen eskakizunak bete beharko dituzte. Bestalde, erabiltzen diren garraiobideak C) esleipen irizpide automatikoaren arabera baloratuko dira.

Ibilgailuen ibilbideak haien gas igorpenak ahalik eta txikienak izateko eta ahalik eta energia gutxien kontsumitzeko moduan planifikatuko dira.

9. HIZKUNTZ BALDINTZAK

Esleipendunak zerbitzua ematerakoan baldintza hauek beteko ditu:

Zerbitzuaren erabiltzaileek edozein hizkuntz ofizial erabiltzeko eskubidea dute, beraz, hitz egiten duten hizkuntzan artatuak izango dira; ezingo zaie eskatu hizkuntza ofizial batean edo bestean hitz egin dezaten. Komunikazioan kontratu honen menpeko langileak hasten badira euskara erabiliko dute eta erabiltzaileak erabakiko du euskaraz ala gaztelaniaz jarraitu. Publiko elebidun batentzako komunikazioak lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz egingo dira.

Erabiltzailearentzako idatzizko komunikazioa (menuak, informazioa, iraungitzea…) euskaraz edo bi hizkuntzetan egingo da euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiago edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Zerbitzua ematen duten enplegatuek testua edo edozein informazio daraman identifikaziorik (txartela, plaka …) edota uniformerik balute, testu hori euskaraz ala elebietan egongo da.

Kontratuari lotuta, pertsona fisiko edo juridikoen datuak jasotzen dituzten datu-base, fitxategi eta erregistroetan (dietak, medikuaren aginduak, kexak, iradokizunak…), eremu bat egon beharko da, pertsona horietako bakoitzak harremanetan jartzeko zein hizkuntza nahi duen jasotzeko. Datua jasota, harreman eta komunikazioak hizkuntza horretan egingo direla bermatuko da.

Enpresak udal arduradunekin aritzeko jartzen dituen solaskideek horretarako ahoz zein idatzizko euskarazko maila nahikoa izan beharko dute.

Kontratatzaile eta kontratistaren arteko komunikazio idatzien euskarriak euskaraz edo elebietan lan egiteko prestatuak egongo dira.

Kontratuari lotuta, udalari entregatu behar zaizkion dokumentu ez publiko edo barneko guztiak, hala nola fakturak, parteak, abisuak, memoriak… euskaraz edo elebietan idatzita egongo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Subrogatzeko balizko obligazioen kalterik gabe, ziurtatu beharko da kontratuari atxikitako langileek euskararen ezagutza-maila nahikoa dutela zerbitzu egokia eman ahal izateko. Ordezkapenak egin edo langile berriak kontratatu behar direnean alderdi hori kontuan izan beharko da. Kontratua kudeatzeko enpresak langileei formazioa emango balie, euskaraz edo elebietan beharko du.

Hizkuntz Baldintza klausula honek klausula administratibo berezien pleguko (KABP) KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK atalean hizkuntza ofizialtasun bikoitzari buruz xedatutakoa osatzen du. Esleipendunak beti ere Irungo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauei buruzko udal ordenantza bete beharko du, eta baita euskararen erabilera normalizatzeko plana ere. Kontratuaren arduradunari dagokio hizkuntz baldintza hauen kontrola eta jarraipena.

10. BERDINTASUNA

Esleipendunak kontuan izan beharko du genero ikuspegia; alegia, aintzat hartu beharko du gizon eta emakumeek behar eta interes desberdinak dituztela, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.

Era berean, ez da erabiliko hizkera sexistarik, ez zerbitzuaren berezko jardunean, ez kontratua bete bitartean komunikaziorako eta zabalkunderako sortzen diren dokumentu eta euskarrietan.

11. DATU PERTSONALEN BABESA

Esleipendunak Datu pertsonalen tratamenduari eta haien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko apirilaren 27ko 2016/679/EB Erregelamendua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa errespetatu beharko ditu.

Esleipendunak datuak tratatzeko hitzarmen bat sinatu beharko du Irungo Udalarekin, beronen ardurapeko datu pertsonal batzuk tratatuko baititu kontratua behar bezala betetzeko.

I. ERANSKINA: sasoian sasoiko produktuak

BARAZKIAK

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Zerba	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Txikoria	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Baratxuri freskoa	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-
Babarrun zuria	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Babarrun beltza	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Babarrun gorria	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Apioa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Apioa-arbia	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓
Alberjinia	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-
Borraja	✓	✓	✓	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Brokolia	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Kuiatxoa	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Kalabaza	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Kardoa	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	✓
Tipula zuria	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Tipula gorria	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Tipulina	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-
Bihotza	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Aza	✓	✓	✓	✓	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Bruselazko aza	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	✓
Azalorea	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Letxuga ezberdinak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Eskarola	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Zainzuria	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Espinaka	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	✓	✓	✓	✓
Ilarrak	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Babatxoak/Babak	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Mihilua	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Lombarda	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	✓	✓
Arbi zuria	✓	✓	✓	✓	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Patata	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Pepinoa	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-
Italiako piperra	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-
Piper txorizeroak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Gernikako Piperrak/ Ibarrako piparrak	-	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-
Potxa	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	-	-	-
Porrua	✓	✓	✓	✓	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Lutxarbitxoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	✓	✓	✓	✓
Erremolatxa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Romanesko	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓
Rukula	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Tomatea	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-

Boilura	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-	✓
Lekak	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Azenarioa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓

FRUTAK

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Ahabia	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Gerezia	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Arana	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Mugurdia	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-
Marrubia	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-
Andere-mahatsa	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Pikua	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-
Kiwia	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	✓
Sagarra	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Melokotoia	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Masusta	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	-	-	-
Mispira	-	-	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓
Udarea	✓	✓	✓	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Mahatsa	-	-	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-

HARAGIA

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Txerria	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Untxia	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Esne bildotsa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	✓	✓
Oilaskoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Potroa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Behi-haragia	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓

ARAINAK ETA ITSASKIA

	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
Antxoa	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-
Bakailaoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Hegaluzea	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-
Txitxarroa	-	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Txipiroia	-	-	-	-	-	-	✓	✓	✓	-	-	-
Atungorri	-	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-
Oilarra	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Legatza	-	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	✓
Lupia	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Legatza	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Zapoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Sardina	-	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	-	-
Berdela	-	✓	✓	✓	✓	-	-	-	-	-	-	-